
AGOTAK... BAITA ERRENTERIAN ERE!

AMAIA OLKOTZ GOIKOETXEA

Irakurleak, agur:

Aldizkari batentzat izango den nire lehen lan honetan, gai arantzatsu eta era berean interesgariaren azalpen laburra egitera natorkizue. Hemen aditzera emango dizuadana, ordea, ikaskide multzo batek egindako ikerketaren emaitza duzue. Horrenbestez bada, ikaskide horiei barkamena eskatu eta eskerrak eman beharrea aurkitzen dut nire burua. Izan bitez lau hitz hauek nire asmoaren lekuko.

Euts diezaiogun baina hariari. "Agotak", beti ibili izan dira jendearen ahotatik belarrietara dantzan. Haatik, ziurrenez, ez dugu inotz zertaz mintzo garen zehatz-mehatz jakin, eta gehienok, laino eta zurrumurrutan bildurik gorde ditugu agotak geure burutan. Ez dizkizuet lantxo honen bitartez zalantza nagusiak argituko gero, baina bego honako hau histori gertakari baten lekuko gisa.

Agotak, baztertu edo zokoratuak izan ziren gizabanakoak ditugu. Baztertze honek indar sakonena izan zuen unea XVI eta XVII. gizaldiek osatuko lukete. XVIII. gizalditik gaur eguneraino gutxiagotuz joan zaigu, ordea.

Baztertze hori zela eta, agota eta agoten aurka zeuden pertsonen artean gatazka sutua sortu zen, eta ondorioz, gizaldi nagusi horietan dokumentu ugari aurkitu ahal izan dugu. Halere, dokumentazio hori oso geografikoki gune txikian ematen zaigu, Nafarroako zenbait haranetan hain zuzen ere.

Nafarroatik at, ordea, aurki dezakegu honelako fenomenoak, izen desberdinez jaten baldin bazaigu ere: Bordelen, Tolosan, Añamendi inguruan; Zuberoa, Lapurdi eta Baxenafarroan; Bretainan... Izen desberdinek, aldiz, ez digute baztertze desberdina denik esan nahi; ezta gutxiagorik ere. Batetan "agota" deitzen bazaie, bestetan gahets, gaffats, capots, cagots, chistiaas, kakoux, caqueux, cordier eta antzeko izanak har ditzakete. Izen guzti hauek, legena edo "lepra" delakoarekin zerikusia dutenez, lehen argi-izpia pizten zaigu gure bidean.

Agoten jatorriari buruz teoria ugari jaso ahal izan dugu. Maila honetan, legenda eta esames anitz izan dira gizaldietan

zehar, burugabeak gehienak. Godo, hereje, sarrasin eta beselako jatorriak aipatu izan dira, baina hipotesi zabalduenak, agotak legendunen ondorengoak zirela dio. Ziurrenez, hauxe izango dugu aukera guztien artean fidagarrienetakoa, agotekin ez nahasteko hartzen ziren neurriak kontutan hartzen baditugu, noski. Honek ez du agotak berak legendunak zirenik esan nahi, ezta gutxiagorik ere!

Zertan datza baina agotek jasan zuten baztertza hori? Dokumentazioa aztertuz, zokoratzea, zenbait arlotan isladatu zela esan genezake:

Erligio mailan adibidez, ezin zituzten sakramentuak herriko beste auzoekin batera jaso: eleizetan txoko bereziak zituzten, baita ponte eta jaunartzeko moduak ere; eleiza eta prozesiotan auzoen atzean koka zitezten beharturik zeuden; hilerrriak ere bereziak zituzten. Auzoek kristau txartzat jotzen bazituzten ere, kristau zintzoak zirela esan beharrea gaudu. Eleiz instituzio nagusienek (Aita Saindu, gotzaigo eta abarrek, alegia) baztertze honen aurka lege mordoak ezarri zuten, baina herri mailan lege hauek ez ziren inoiz indarrean jarri.

Auzoen eritziz, tratu hau kristau zaharrak ez izanagatik zuten merezia.

Gizarte mailan badugu ere zokoratzearen adierazgarriak. Instituzio gorenek, agotak "auzo" maila edo kategoria zutela zioten, baina haran eta udal agintariek ez zieten maila hori onartzen. Azken hauentzat "biztanle" maila zuten soilik. Gure begietan desberdintasun honek huskeria badirudi, garai haietan garrantzi handikoa zela esan behar, auzotzat jotzen ez zituztenez zenbait eskubide galtzen bait zuten. Hau dela eta atzerritarrek baino maila txikiagoa zuten; bilau eta azpisuge deitzen zieten; etxeak herritik at egin behar zituzten; jatzera bereziak eraman behar zituzten; "agota" deituz iraintzen zituzten; ez zezaketen lan duingarririk egin; ezin zuten udalean parte hartu; ez zuten herri-baso eta lurretan lan egiteko eta ekoizpenak jasotzeko eskubiderik; lanaren truke, gainontzeko auzoek irabazten zutenaren erdia irabazten zuten; beraien artean ezkontzea beharturik zeuden; ezin zuten harmarik erabili...

Auzo eskubidarik ez izanak, "ghetto" edo gizarte baztertuan kokatzen zituen agotak. Baztertze hau, uste baino larriagoa zen zeren, legeak, agotei arrazoa ematen bait zien. Nafarroako korteek, behin eta berriro ezarri zituzten agotak auzotzat jotzen zituzten legeak. Haran eta udal biltzarreek, alabaino, ez zieten jaramonik egiten.

Protagonisten mundua aztertzen badugu, gatazka honetan, bi talde nagusirekin topo egingo genuke. Agotak eta bere aldekoak batetik, eta agoten aurkakoak bestetik. Agoten aurkakoak, bizi-lagunak, behe mailako apaizak, udal eta haran batzarreak eta antzekoak genituzke. Agoten aldekoak berriz, Aita Saindua, gotzaiak, Nafarroako korteak, etab. Agoten inguruan bizi zirenak ziren beraz aurkakoak, eta urrun zeudanak aldekoak.

Zergatik gertatzen zen baztertze edo zokoratze hau? Kristau zehar ez izateak, legendunen ondorengo izateak eta gainerrakoez aitzakia hutsak dirudite. Halaber, dokumentu eta ikerketen murriztasuna dela-ta azpian dagoen arrazoa aurkitzea zaila zaigu.

Azalez gatazkek hori adierazten ez badute ere, gakoa, biztanlego/errekurtso desoreka dela pentsa genezake. XVI, XVII. gizalditan, inguru hauetako lurrek ez zuten danak ongi bizi zitezen adina ekoitzen, eta hori leun zezan beste ekonomi ariketa nagusirik ere ez zegoen.

Sabela betetzeko adina ez zeukatenez, garai hauetako giza-taldeak, jende kopurua gutxiagotu beharrean aurkitzen ziren. Horrenbestez, kanpotik zetorren jendea herrietan gera ez zedin sistema batzu nagusitu ziren: kaparetasuna behar izatea hiri eta haran hauetan geratzeko, hintar izateko odol garbitasuna frogatu behar izana... etab.

Honelakoak betetzen ez zituztenei, auzo maila edo kategoriara heltzeko bideak moztu zitzaizkien. Maila hau ez izateak, beraz, zenbait ekonomi abantailatik at uzten zuen jende baztertu hau, auzoen probetxurako, noski. Hau izan liteke agian agoten zokoratze edo marginazioaren arrazoi ta mami.

Gipuzkoa mailan lau tokitan aurkitu dira agoten aztarnak garai hauetan (XVI, XVII. gizaldi inguruan alegia): Hondarribia, Errenteria, Asteasu eta Tolosan. Hauek, oro har, beste probintzietatik etorritako agote taldeak direla pentsa dezakegu.

Dokumentaziorik ezak ixilpetzen ez badu behintzat, ez dirudi herri hauetako agotek hemen aditzera eman den bazterketa jasan zutenik. Honen aurrean, eta bukatzeko, oraingoz erantzun ezin edo ez diren bi galdera utziko ditugu airean:

Gatazka izan zirela azaltzen duen dokumenturik ez dagoenez, herri hauetan murgildu egin zirela pentsa al dezakegu? Edo ta ez al zuten baztertzaileei lege mailan erantzuteko kemenik izan...?

BIBLIOGRAFIARIK GARRANTZITSUENA

AGUIRRE DELCLAUX, María del Carmen: *Los agotes*; Excma. Diputación de Navarra e Instituto Príncipe de Viana y CSIC; Iruinea, 1977.

IDOATE, Florencio: *Documentos sobre agotes y grupos afines en Navarra*; Excma. Diputación de Navarra; Iruinea, 1973.

MICHEL, Francisque: *Histoire des races maudites de la France et de l'Espagne*; ELKAR; Donostia, 1983.

ROCHAS, Vicent de: *Les parias de France et d'Espagne*; París, 1876.